

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jazinta Sasiain Aiestaran

*Bermeo
Bizkaia (1934)*

Aurkibidea



Biografia



[Mañu](#) auzoko [Bidetxe](#) baserrian, "Enpolitone" izenez ezaguna denean, jaio zen. Gurasoak ere Mañukoak zituen, gipuzkoar jatorriko baserritarrak. 9 neba-arreba izan ziren, horietako 3 hirukoitzak, eta Jazinta bera gazteena. Umetan Mañu bertako eskolan ibili zen. Beti aritu izan da baserriko beharretan. [Arane](#) auzoko [Emilio Ibinagagoitia](#)gaz ezkondu ostean, [Mañugoikora](#) joan ziren bizitzera. Bere senarragaz batera egin genion elkarrizketa.

Zintak

BRM-112

- **Proiektua:** Bermeoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2012-05-24
- **Iraupena:** 76 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

Pasarteak

1. Basoa aitzurragaz labratzen

- **Erref:** BRM-112/010
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:14:16. **Bukatu:** 00:15:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Txiki-txikitatik hasi zen baserriko lanetan. Basoak aitzurragaz labratu zituen 11 urte zituela etxeakoak tifusak jota egon baitziren; harri asko zegoen eta ezin zen gandurik sartu.

2. Bizimodu gogorra; etxean 4 ume hil

- **Erref:** BRM-112/011
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:15:03. **Bukatu:** 00:16:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Umetatik egin du behar baserrian, asko eta gogora gainera. Indaba eta arto asko izaten zuten. Etxeko 4 ume, tartean hirukoitzak, umetan hil ziren.

3. Gose zirenei jeneroa eman behar

- **Erref:** BRM-112/012
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:16:51. **Bukatu:** 00:18:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Arto eta indaba asko zuten etxean. Saltzeaz gain, asko oparitzea egokitu zitzairen, gerraostean gosea baitzen nagusi. Bermeotik jende asko joaten zen bertara eskean. Gerraostea tristea izan zen. Arane inguruko basoetara jendea egur bila joaten zen Bermeoko kaleetatik.

4. Ezin eho eta errotara gauez joan behar

- **Erref:** BRM-112/018
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:26:47. **Bukatu:** 00:29:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

<p>Gerra denboran errotak zarratu egin zituzten eta gauez joan behar izaten zuten ehotzera. Bakioraino joaten ziren bertako errotetara.</p>

5. Gerraostean, baserriko jeneroa entregatu behar

- **Erref:** BRM-112/019
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:29:18. **Bukatu:** 00:30:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Garia, artoa, patata... herrian entregatu behar izaten zuten gerraostean. Baserritarrek ez ziren beste ezertara dedikatzen eta beti zuten entregatzeko beste jenero.

6. Arraina baserriko jeneroaren truke

- **Erref:** BRM-112/023

- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:32:35. **Bukatu:** 00:34:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Kalera terrinkada-esne eraman eta terrinkada-arrairain ekartzen zuten bueltan. Txitxarroak sikatu ostean erreta jaten zituzten freskotan barik. Ez zuten hozkailurik eta horrela kontserbatzen ziren. Txaparik ere ez zuten eta beheko suan egin behar izaten zuten dena.

7. Domeketa eta jaietako jatordu berezia

- **Erref:** BRM-112/025
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:36:00. **Bukatu:** 00:39:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Umetan ez zuten jatekorik botatzen faltan, ez baitzuten pentsatzen ezer hoberik egon zitekeenik. Jazintaren etxean sarritan jaten zuten txokolatea, Emiliorenean domeketan-edo bakarrik. Domeketako jatordua berezia izaten zen, oiloa-edo. Mañun Karmen egunez eta Bermeon Andra Mari egunez ere jatordu bereziak egiten zituzten. Postrea arroz-esnea eta putxa (gatzatua) izaten zen.

8. Putxa zelan egin

- **Erref:** BRM-112/026
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:39:08. **Bukatu:** 00:40:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak

Laburpena:

Putxa (gatzatua) behiaren esneagaz egiten zuten. Putxa zelan egiten zuten azaltzen du.

9. Mañuko berbeta desberdina da

- **Erref:** BRM-112/028
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:40:39. **Bukatu:** 00:42:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Mañun eta Bermeoko beste auzoetan eta herrian bertan ez da hizkera berbera egiten.

10. Emilio Matxixakoko eskolara

- **Erref:** BRM-112/030
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:44:55. **Bukatu:** 00:48:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolan ikasi zuten erdara apur bat. Jazinta Mañuko eskolan ibili zen eta Emilio Matxixakokoan. Matxixakoko eskola urrun egon arren, bertara joaten ziren Emilioren etxeokak baso artetik eta euria egiten zuenean zakua buruan jarrita. San Pelaio auzokoak ere bertara edo Bakiora joaten ziren. Neskak eta mutilak batera egoten ziren maistra bakarragaz.

11. Mañuko eskola; Matxixakoko eskolako eguerdiak

- **Erref:** BRM-112/032
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:49:02. **Bukatu:** 00:50:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Mañuko eskolan sarri aldatzen zituzten maisu-maistrak. Inguruetako umeak etortzen ziren bertora, 40 umetik gora. Matxixakoko eskolan ibili zen Emilio eta bertan egiten zuten eguerdia denek batera.

12. Eskolako zigorrak

- **Erref:** BRM-112/033
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:50:43. **Bukatu:** 00:52:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

Maistrak ez ziren denen gustukoak izaten, bakoitzaren jarreraren arabera. Eskuetan liburuak eutsiz edo erregela handi batez atzamar puntetan edo buruan jotzen zituzten zigor modura. Emiliok-eta maistrari adarra jotzen zien. Oraingo umeak baino formalagoak ziren, hezkuntza hobea jaso zuten-eta.

13. Eskolako olgetak eta bandera

- **Erref:** BRM-112/034
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:52:39. **Bukatu:** 00:56:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Eskola garaiko olgetak: erbi-erbike (erbiak atrapatzen) basorik baso... Goizetan eskolan Francoren bandera altxatu behar izaten zuten eskolan eta Cara al Sol abestu. Ez zuten ezelako jostailurik, baina txiritxolagaz aroa egiten zuten.</p>

14. Abarkak eta galtzerdiak etxean egindakoak

- **Erref:** BRM-112/036
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:56:57. **Bukatu:** 00:59:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak
- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Erregenetan zapatak hutsik izan zituzten, nahiz eta pentsatu zer edo zer utziko zutela. Galtzerdi batzuekin konformatzen ziren. Galtzerdiak ere etxean egiten zituzten artileagaz. Jazintak haria eta galtzerdia zelan egiten den azaltzen du. Abarkak ere larruagaz egiten zituzten etxean, laban egitea erraza zen oinetako horiekin; hala ere, ez zuten pentsatzen hoberik egon ziteenik.

15. Abarka egiteko prozesua pausuz pausu

- **Erref:** BRM-112/037
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:59:46. **Bukatu:** 01:02:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak

Laburpena:

Behia hilez gero, ermandadean aprobetxatzen zuten larrua sikatu ostean. Ez zen landu beharrik, lisu-lisu egoten zen-eta. Sikatu ostean, neurrira ebakitzen eta josten egiten zen. Puntxeta, abarka untzea (iltzea) zen, harekin amarratzen ziren zuloak uhalagaz. Abarketak normalean erosi egiten zituzten. Beranduago gomazko abarkak erabiltzen hasi ziren, larruzkoak baztertuz.

16. Etxe zaharren egitura: porlanik ez, beheko sua...

- **Erref:** BRM-112/038
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 01:02:34. **Bukatu:** 01:04:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Kortako lurra ez zen porlanezkoa izaten, dena egoten zen satsagaz (simaurra) estalita. Ezkaratzean ere (sukaldean) lurra baino ez zegoen. Beheko suan "lazkakoa"n lapikoa jarri eta han prestatzen zuten jatekoa.

17. Okela gatzetan gorde eta garbitasunak errekan

- **Erref:** BRM-112/040
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 01:04:30. **Bukatu:** 01:05:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Okela salmoatan jartzen zuten gazta botata uretan. Hozkailu barik horrela kontserbatzen zen. Txerria ere gatzetan gordetzen zuten. Urik ere ez zuten eta putzura joaten ziren arropak garbitzera. Erreketan bakoitzak bere losak izaten zituen.

18. Negu gogorrak

- **Erref:** BRM-112/041
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 01:05:46. **Bukatu:** 01:07:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Neguak oso gogorrak izaten ziren, elurte handiak ezagutu dituzte. Mañu auzotik Bermeora astoz joaten ziren esnea saltzen, eta metro bateko elurragaz astoa ezinean joaten zen.

19. Gari-txolekin argiztatu

- **Erref:** BRM-112/042
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 01:07:28. **Bukatu:** 01:09:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Argi barik karburua eta gari-txolak ziren nagusi. Gari-txolek metro beteko luzera izaten zuten, bat bukatu ostean beste bat isiotzen zuten; sarritan, gari-txolekin goizeko lehen mezara joaten ziren ilunetan.

20. Kurtsulua eta farola korta argiztatzeko

- **Erref:** BRM-112/043
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 01:09:16. **Bukatu:** 01:10:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Kortan argia egiteko, farola erabiltzen zuten su hartu ez zezan. Olioagaz pizten zen kurtsulua (kruselua, argiontzia) ere erabiltzen zuten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-24

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com